

# Digitalaia behatokia sortu da, aztertzekeo teknologia digitalen eragina gizartean

2009/10/14

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, HUHEZIn, ikerkuntza talde bat sortu da, **Digitalaia**, eta helburua du aztertzea teknologia digitalak zer harreman duen gure gizartearen hainbat arloekin: unibertsitate aurreko irakaskuntza, unibertsitate irakaskuntza, hedabideak, euskara eta kooperatibak.

Hasteko baina, Digitalaia taldeak hobetsi du aztertzea **zer harreman duten HUHEZiko ikasleek** --eta baita irakasleek ere-- **teknologia berriekin**. Horretarako galdetegi bat prestatu du Melbourneko Unibertsitatearekin batera, aprobetxaturik Australiako unibertsitateak indarrean duen ikerkuntza proiektu bat, Educating the Net Generation, zeinaren bidez hobeto ulertu nahi diren natibo digitalen esperientziak eta nahiak teknologia berriei dagokienez. Azken batean, informazio horrekin hobetu nahi dira unibertsitate irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak, beti ere teknologia berriak erabilia.

Irailaren erdi aldean, 1. mailako ikasle guztiek bete dute Digitalaiak prestaturiko galdetegiak, bai Hezkuntzakoek eta baita Komunikaziokoek ere. Gauza bera egingo dute karreraren erdian eta bukaeran. Galdetegiaren emaitzak partekatu egingo dira Educating the Net Generation proiektuan diharduten unibertsitateekin.

